

BATZAR IREKIA

A. Luis Villasanteren omenezko liburukiaren aurkezpena

Gernika-Lumoko udaletxean 1992.eko uztailaren 24 ean, eguerdiko ordu lean, bildu dira: J. Haritschelhar euskaltzainburua, J.M. Lekuona buruordea, J.M. Satrustegi idazkaria, J.A. Arana Martija diruzaina, P. Altuna, M. Azkarate, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, E. Knörr, A. Irigoien, E. Larre, B. Oihartzabal, F. Ondarra, Tx. Peillen, P. Salaburu, J. San Martin, I. Sarasola eta L. Villasante, euskaltzainak; E. Agirretxe, J.M. Aranalde, M. Atxaga, R. Badiola, A. Eguzkitza, J.A. Etxebarría, B. Gandiaga, J. Intxausti, X. Kintana, J.L. Lizundia, J.A. Retolaza, P. Uribarren, A. Urrutia eta J.J. Zearreta urgazleak.

Udaletxeko batzar aretoan aurkitzen dira baita ere frantziskotarren Aita Probintziala, Arantzazuko Aita Goardiana, Miriam Villasante loba, lehengusu, lehengusina, Erretereria auzoko aspaldiko adiskide, fraide lagun eta Gernikako herritar andana bat.

Ezin etorria adierazi dute: F. Krutwig eta A. Labaien euskaltzainek.

Mahaiburuan eseri dira: J. Haritschelhar euskaltzainburu eta L. Villasante euskaltzainburu-ohiarekin batera, Sergio Villa Gernika-Lumoko alkateordea eta M.^a Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako idazkari nagusia.

Hasieran Sergio Villa alkateordeak hitz batzuk esaten ditu, adieraziz nola Eduardo Vallejo alkateak Euskal Herritik kanpora joan behar izan duen eta beronen izenean, Euskaltzaindiari Udaletxeko areto honetan ongi-etorria ematen diola. Gainera, pozgarria dela herriko seme bati omenaldia egitea, azpimarratuz Udalbatzak A. Luis Villasante "Bizkaiko Seme Bizkain" izendatzea eskatu diola Bizkaiko Foru Diputazioari.

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak Udalaren harrera eta erabakiak eskertuz, A. Luis Villasanteren euskararen aldeko lan nagusiak zehazten ditu, bereziki euskaltzainburu bezala izan duen 18 urtetako emaitza ikusgarria azpimarratuz. Bere hitzaldian zehar hainbeste ekintza azaltzen ditu, orain arte idatzi dituen 23 liburuak barne. Guzti hori dela eta Iker bildumako ale propioa, ome-

naldi liburua deritzana, proposatu zion Euskaltzaindiari eta honek onarturik burutu da, hain zuzen egun aurkezten dena.

M.^a Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak, Jose Antonio Ardanza lehendakariak, A. Luis Villasanteri omenaldi hau dela-eta bere atxikimendua agertuz bidali dion gutuna irakurtzen du. Era berean, A. Labaien euskaltzainak eta J. Garmendia urgazleak igorritako atxikimenduzko gutunak irakurtzen ditu euskaltzainburuak.

A. Luis Villasantek eskerrik zintzoenak emanez, bere familiako, lagun eta adiskideak agurtuz, agintari eta euskaltzainekin batera, haurtzaro eta gazte denborako pasadisu eta gertaera hunkigarriak azaltzen ditu. Erretereria bere auzo, gurasoen Mena ibarra eta Aulesti aipatzen ditu, bereziki bere gernikartasuna argituz amaitzen du berbaldia.

Eta ondoren alboko Kultur-etxean udalak eskainitako lunch batekin amaitzen da ekitaldi hau.